

**BAKEAREN URTEAN
USTEZ BAKEAREN BILA ETA EGITEZ
BAKEAREN AURKA?**

Bakearen aurka..

Nire galdera hau da: oharitu al gara bakea gora eta bakea behera hitz-jarioka ari garela ere, bakearen eta geure buruaren aurka egin genezakeela?

- Bakeak garra, ilusioa behar du,
- bakeak elkar onartzea eskatzen du,
- bakeak egia behar du,
- bakeak ogia behar du,
- bakeak arnasa behar du,
- bakeak pertsona eta herrien nortasuna agertzeko aukera esan nahi du,
- bakeak Bake-Egilea behar du..

Baina bake-ohiu eta zaratak alde batetara utziz, bakearen aurkako joera tamalgarria somatzen dugu; areago oraindik, norbere buruaren suntsitzea edo hondamena!

- Gorrotoak dakarren norbere hondamena! (Gorrotoak ez du lehenengoz gorrotatua suntsitzen edo hondatzen, gorrotatzailea bera baizik).

- Politikan ere hau ikusten dugu: harropuzkeriak, egolatriak elkar ezin ikusia dakar; elkartasuna hautsi egiten du: gizarteak bere buruaren aurka gauzatutako hondamena besterik ezin etorri hortik.
- Horrek oraindik etsipen... gorroto handiagoa dakar..
- Estatuaren joera ere hor ikusten dugu: garaile izan nahia-
ren izan nahiaz gorroto-bidera jotzen du; gorroto-bidean ezartzen du bere burua. Politikariek bakearen izenean hitz-jarioka, baina elkarren artean zatiketak sortzen, gorrotatzen... eta gero gogorkeriagaitik aitarenka, harriturik; euren ustelkeriaz kutsaturik sortu zaien eskuetako sagar ustelari begira harriturik...
- Urteetan zehar kristau-gizartea hautsi nahiak... gizakiaren hondamena dakar, gizakiaren buruhilketa. Eta hauen mezulariak komunikabideak ditugu. Eta ez al da harritzekoa eurak eten gabe bake-deika entzutea?
- Norbere hondamena (autodestruzioa) konplexuengaitik? Ezjakintasunagaitik? Dena dela, gaitz horren «ordagoa» hortxe daukagu: bakerik eza, herri-izaeraren ukapena, nortasunik eza!
- Bakeak norbere hondamenari uko egitea ez al du eskatzen? Gezurrezko bakea, gezurrezko ametsak alde batera uztea ez al du eskatzen?

Garaipena!

Politikariak garaipenaren atzetik doaz bai, baina bakearen aurka. Politikariak, erbestean, beste herri eta nazioetako bakegile moduan agertzen dira; baina euren etxean, euren herri eta nazioetan garaipena bilatzen dute.

- Eskuindarrak ezkertiarren bidegabekeriaren aurka, ezkertiarrek, berriz, eskuindarren bidegabekeriaren aurka. Ideologia bata bestearen aurka; ideologia ez denean, ogia eta dirua tartean direlarik.

Salvador-ekoak, Nikaraguakoak atzerriko arazoak konpontzeko prest; baina eurenak? Txile, Frantzia, Amerika, Errusia... berdin... Eta Espainia? Hor dugu Felipe Gonzalez mezulari ondratua inori aholkuak ematen; lau haizetara hitz-jarioka bake-aholkuak ematen... erraz, errazegi, nazioartean bakegile eta bakezaletzat agertzen du bere burua... baina etxean zer? Ez al dute aholku horiek etxerako balio? Bakea? Garaipena! Garaipena, bai! Hori nahi du!

- Erregeak ere patriarka bat dirudi atzerrian bakea aldarrikatuz hitz egiten duenean. Baina errege «bakezale» horrek zer egin du Euskal Herrian bakea sortzeko? (Beraren semea ere azkarra omen da atzerriko hizkuntzak eta ikasten. Ondo!, eta barrukoak, Espainiakoak ikasi ez? Eta bakegile? elkar ezagutu gabe, elkarrengandik ikasi gabe, ingurukoak estimatu gabe, bakegile! Hamaikatxo kanpo-eder etxe-kalte ezagutzeko aukera izan dugu, etxean gerra sortzen ari direlarik...!)

Garaipena!

Garaipenak bakea al dakar? (Eman begiradatxo bat historia osoari eta ikus!).

Bake-Pactum delako horretatik ez al dute guztiek zer edo zer irabazten?

Bake-Pactum honek ez du bake sakonik eskaintzen, baina ez al da hori ere urrats on bat?

Garaipena eta bakea, biak batera lortu ote daitezke gizarteetan? Frogatu ote du horrelakorik inork? Barne-indarrek eraginik, izpirituaren indarraren ezaugarritzat, borondatez bere burua beheratu eta bake-indarra agertu duenik ezagutzen al-dugu?